

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Deialdia eta oinarriak kirol, kultura eta gizarte-ekintza arloetako 2016ko dirulaguntzak emateko

Erriberabeitiko Udalak 2016ko irailaren 22an egindako ohiko bilkuran, kirol, kultura eta gizarte-ekintza arloetako 2016ko dirulaguntza deialdia eta haren oinarri arauak onartu zituen.

Bat etorri azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 52.1 artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira, denek jakin ditzaten.

Kirol, kultura eta gizarte-ekintza arloetako 2016ko dirulaguntzak emateko oinarriak

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea, norgehiagoka bidez, arlo soziokulturalean eta kirolaren arloan ekimenak, programak eta jarduerak gauzatzeko Erriberabeitiko udalerrian, betiere udalaren jarduera osatuz, eta betiere honela gauzatzeko badira:

Dinamizazio proiektuak: 2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31 arte gauzatutako programa eta jarduerak.

Deialdia oinarri hauek eta 2016ko uztailaren 14ko bilkuran onartu zen udal ordenantzak arautuko dute, bai eta azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ere, zeinak onartu baitzuen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, dirulaguntzen orokorraren, Erregelamendua.

Oinarri hauek aipatzen dituzten dirulaguntzak printzipio hauen arabera kudeatuko dira: publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eta, orobat, efikazia helburuak lortzeko orduan eta efizientzia baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko orduan.

1. artikulua. Deialdiaren xedea eta helburua

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen xedea da sustatzea irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeek Erriberabeitiko udalerrian gauzatzeko proiektu eta jarduerak, honako arlo hauetakoak:

1. Gizarte eta komunitatea sustatzeko interbentzioak:
 - Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna.
 - Gizarteratzea eta/edo kulturartekotasuna.
 - Hirugarren adinekoak.
 - Umeentzako eta/edo gazteentzako hezkuntza, aisia eta astialdiko jarduketak.
 - Osasun prebentzioa.
 - Etengabeko prestakuntza eta boluntarioak sustatzea.
 - Sentsibilizazioaren ingurukoak: ingurumena...
2. Kultura sustatzeko interbentzioak:
 - Arte prestakuntza eta sormena.
 - Herritarrek parte hartzeko kultura jardueren ingurukoak: jaiak, eta abar.
 - Kultura zabalkundea: hitzaldiak, monografikoak, erakusketak...
 - Kultura bisitak.

3. Kirola sustatzeko interbentzioak:

- Kirol jarduerak.
- Kirol ekitaldiak antolatzea eta egitea.
- Oinarrizko kirola sustatzea.
- Kirol arloko elkarte eta talde legez eratuak material ez suntsigarria eta/edo ekipoak erostea.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

- Herriko zaindariaren jaietako egitarauan diruz laguntzen diren berariazko jarduerak.
- Honako hauetan egiten diren gastuak: norberaren erabilerako materiala, txangoak, bazkariak, lunchak eta abar, dietak eta joan-etorriak.
- Elkartearen barne funtzionamenduaren eta kudeaketaren gastu materialak, ez eta beren jardueren zabalkundea egiteko publizitatearenak ere. Ezta elkartearen web orria mantentzeko gastuak ere.
- Udalak eskaintzen dituen proiektuen paraleloak, nola eta ez diren udalak eskainitakoen osagarriak.
- Federazio gastuak.

2. artikulua. Pertsona eta erakunde onuradunak

1. Pertsona eta erakunde hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradun:

a) Irabazteko xederik gabeko kirol elkarte eta klubak, behar bezala erregistratuta badaude ekainaren 22ko 7/2007 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteenaren, arabera, eta beren programak eta jarduerak udalaren eremuan bakarrik gauzatzen badira.

2. Onuradunen betebeharrak:

1. Udalerriaren esparruan 2015eko urtarrilaren 1etik abenduaren 30era arte gauzatu diren sustapen soziokulturaleko jarduerak eta kirola sustatzeko jarduerak.

2. Haien jardun esparruak eragina izatea Erreiberabeitiko udalerrian.

3. Elkartearen egoitza udalerrian izatea.

3. Hauek ez dira onuradun izango:

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotzen dituen egoeretakoren batean daudenak.

3. artikulua. Aurrekontu zuzkidura

Hau da 2016rako aurrekontu zuzkidura: 11.500 euro, 334.481010 eta 341.480000 aurrekontu partidetakoak.

Dirulaguntzak borondatezkoak dira, eta alde zuzenetik jaso izanak ez du berriro jasotzeko eskubiderik sortzen.

Udalaren dirulaguntza hauek bateragarriak dira pertsona onuradunek jaso ditzaketan beste batzuekin; hala ere, udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da izan, bakarrik nahiz beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera, garatutako jardueraren defizitaren kostua baino handiagoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, ateratzen den defizita hartuko da oinarriztat, aurreko paragrafoan deskribatzen den moduan.

4. artikulua. Zenbatekoa

Zenbatekoa ezarriko dira diruz lagundu ahal diren era bateko eta besteko jardueretarako ezarritako muga arabera; muga horiek artikulua honetan zehazten dira, eta ezingo da ordaindu inolaz ere ordaindu dirulaguntza gisa elkarteak bere jarduera guztietarako daukan urteko defizita baino gehiago.

Kasu guztietan, baldin eskaeren kopurua eta eskatutako dirulaguntzen zenbatekoa direla-eta dirulaguntzen gehieneko ehunekoak txikitu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, txikitzea proportzioan ezarriko zaie jarduera guztiei.

Nahiz eskaerarik aurkeztu ez delako, nahiz bete beharreko baldintzak betetzen ez direlako, jarduera lerroetakoren batean zuzkidura agortzen ez bada, soberan geratu den zenbatekoa erakunde onuradunei esleitutako zenbatekoari gehitu ahalko zaio, oinarri hauetako 7. artikuluan xedatzen den instrukzio organoak egiten duen proposamenaren arabera.

Programak baloratzeko irizpideak

a). Aurkeztutako programak: Gehienez 10 puntu.

Gauzatutako jarduera kopurua, 1 puntu jarduerako

b). Bazkide kopurua (1 puntu 15 bazkideko): 5 puntu, gehienez ere.

c). Programen jarraitutasuna (puntu bat urteko): Urtebete elkartea edo entitatea sortu zenez gerotiko urte bakoitzeko: gehienez ere 10 puntu.

d). Jarduerak udalerrian duten eragina (zenbat pertsona jotzen diren izan daitezkeela programen edo jardueraren onuradun): gehienez ere 10 puntu.

e). Erakunde eskatzaileak egiaztatzea beste finantzabide batzuetara jotzeko duen zailtasuna. Gehienez ere: 2 puntu

f). Egitekoa den programaren edo jardueraren orijinaltasuna. gehienez 1 puntu.

g). Jarduerak edo programak euskararen aldeko eragina edo trataera izatea. Gehienez ere: 1 puntu.

h). Genero berdintasunaren ikuspegia txertatzea jarduera egitean. Gehienez ere: 1 puntu.

Balorazioaren ondorioz lortutako puntuak bat etorriko dira aplikazio portzentaje honekin:

ESKURATUTAKO PUNTU KOPURUA	PORTZENTAJEA
1 eta 10 puntu bitartean	% 1 - % 25
11 eta 20 puntu bitartean	% 26 - % 50
21 eta 30 puntu bitartean	% 51 - % 75
31 eta 40 puntu bitartean	% 76 - % 100

Eskatzaile bakoitzeko zenbatekoa ezin da izan aurrekontu partidako ehuneko 80 baino gehiago, erakunde eskatzaile bakoitzaren kasuan, zenbat ere programatarako edo jardueretarako eskatzen den dirulaguntza.

5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren agiriak aurkeztu behar dituzte:

Agiri orokorrak:

– Eskabidea eredu ofizialean (I. eranskina). (udaletxean dago eskura)

– Justifikazio kontu sinplifikatua (II. eranskina). (udaletxean dago eskura)

- Diruz lagundu ahal diren fakturen fotokopia
- Eskatzailearen NANaren fotokopia eta elkartaren IFZ.
- Zinpeko aitortpena: xede bererako beste administrazio edo erakunde edo entitate publikoren baten beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskatu edo jaso den ala ez. Beste dirulaguntzaren bat jaso bada, zenbatekoa adierazi beharko da, baita zein administraziok eman duen ere; halaber, datuak benetakoak diren egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da
- Ziurtagiria, Erriberabeitiko Udalarekiko zerga betebeharrak beteta eta egunean edukitzekoa (Udalak aurkeztuko du).
- Estatutuen eta elkarte edo erakundeen dagokion erregistroan legez eraturik eta inskribaturik dagoela egiaztatzen duten agirien kopia, baldin eta lehenengoz eskatu badute edo, udal erregistroan egon arren, estatutuak aldatu badituzte.
- Ziurtagiria, eskatzaileak Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zerga betebeharrak egunean eta beteta dituelakoa; halakoaren faltan, zinpeko aitortpena, betebeharrak fiskal eta/edo tributuzkoetan egunean dagoelakoa
- Gastu eta diru sarreren balantzea, diruz lagundutako aldian egindako jardueren arabera xehatuta.
- Fakturak betekizun hauek bete behar dituzte:
 - Langile gastuak badaude edo elkarrekin PFEZaren atxikipena duten fakturak aurkeztu badituzte, 190 ereduaren kopia bidaliz egiaztatu beharko dute atxikipenak ordaindu dizkietela Arabako Foru Aldundiari.
 - Zinpeko aitortpena: xede bererako beste administrazio edo erakunde edo entitate publikoren baten beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskatu edo jaso den ala ez. Beste dirulaguntzaren bat jaso bada, zenbatekoa adierazi beharko da, baita zein administraziok eman duen ere; halaber, datuak benetakoak diren egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da (l. eranskina)
 - Banketxeak emandako ziurtagiria, kontu zenbakia eta titularra jakinarazten dituen, elkarrekin izenean, non eta ez dagoen udalean alde aurretik.

6. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2016ko urriaren 31n amaituko da, eta epe horretatik kanpo ez da izapidetuko eskaerarik.

Dokumentazioa sarrera erregistro orokorrean aurkeztuko da edo 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 38. artikuluan xedatutako eraren batean, zeina 1/2007 Legeak, herritarren zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoarenak aldatu baitzuen.

Eskaerak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari eskatuko zaio zuzen dezala hamar egun balioduneko epean, bat etorri azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 71.1 artikuluan xedatutakoarekin.

7. artikulua. Emateko eta ebazteko prozedura

Udaleko zerbitzu teknikoek eskabideak ebaluatu ondoren, behin behineko ebazpen proposamena egingo da, eta alkateak irizpena emango du, eta, ondoren, interesatuei jakinaraziko zaie, 10 egun balioduneko epea emanez egoki deritzetena alegatzeko.

Behin alegazioak ebatzirik, alkateak ebatziko du dirulaguntzei buruz, eta pertsona interesatuei jakinaraziko diete behin betiko ebazpena.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, bertan azalduko da haren aurka zer errekurtsio jar daitezkeen, eta jakinaraziko da 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskabideei buruz ebazpena emateko hilabete izango da, eskabideak aurkezteko emandako azken egunetik kontatzen hasita (6. artikuluan dago ezarrita epe hori). Epe hori berriazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, eskabide ezetsi egin dela joko da.

Emandako dirulaguntzak udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratuko dira, pertsona orok jakin dezan, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, xedatutakoarekin bat etorriz.

8. artikulua Onuradunen betebeharrak

– Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak eta betekizunak betetzen direla justifikatzea, baita dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela eta helburua bete dela ere.

– Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere, eskatzen zaien informazio eta agiri guztiak emanaz, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutakoak barne.

– Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.

– Egiaztatzea bete dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

– Pertsona juridikoa izanez gero, kontabilitate liburuak, egindako erregistroak eta merkataritzako gainerako agiriak behar bezala auditatuta edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatzekoa den merkataritzako eta sektoreko legerian ezarritakoaren arabera.

– Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.

– Jarduerak dakarren publizitatean, honako adierazpen hau egon beharko da agerian: Erriberabeitiko Udalarekiko lankidetzan; orobat, udalaren armarrria agertu beharko da hurrengo ekitaldiko jardueretan.

– Dirulaguntza ordainduko bada, beharrezkoa izango da, itzulpen edo zehapen prozeduraren bat izanez gero, hura amaitzea; Erriberabeitiko Udalak hasirik oraindik izapidetzen ari bada.

9. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea

Behin interesatuei jakinarazita behin betiko ebazpen proposamena, 30 eguneko epean egingo da ordainketa.

Onuradunek ez badituzte betetzen oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta xedapenak, gerta liteke dirulaguntza ezeztatzea, eta, hala gertatzen bada, dirulaguntza itzultzeko prozedura Erriberabeitiko Udalaren dirulaguntzak emateko ordenantzan araututakoa izango da.

10. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan xedatu ez denerako, honako hauek hartuko dira kontuan: Toki araubidearen araudia; Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeran); azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzen orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; dirulaguntzen udal ordenantza, Udalbatzak 2016ko uztailaren 16ko bilkuran onartua; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, zuzenean, Gasteizko epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, aukerako berraztertze errekurtsua, deialdia onartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua. Datu pertsonalen babesa

Bat etorri abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalak babestearenak, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, erakunde publikoen jabetzako datu pertsonalen fitxategien eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzearenak, xedatutakoarekin, deialdi hau izapidetzeko bildutako datu pertsonalak Erriberabeitiko Udalaren dagokion fitxategian jasoko dira, zeina Erriberabeitiko Udalaren datu pertsonalen fitxategiak sortzeko eta aldatzeko arauan sartuta baitago.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko, Erriberabeitiko Udalera jo behar da.

Era berean, deialdi honetan lehiatzen diren pertsonak baimena ematen diote Erriberabeitiko Udalari egiazta ditzaten aurkeztutako agirietan emandako datuak beste organismo publiko batzuetan.

Rivabellosa, 2016ko urriaren 3a

Alkatea

PEIO RUIZ GARCIA